

Inauteri jaia larunbat honetan Andoainen eta Urnietan



Andoaingo Kaldereroek inauterien etorrera iragarri zuten.

Inauterietako ospakizun nagusiak larunbatean egingo dituzte Andoainen eta Urnietan.

Urnietan larunbateko herri bazkarirako txartela Xauxar eta Amaiur tabernetan hartu behar da, 2 euroko prezioan

Aurreko larunbatean Andoaingo kaleetan kaldereroek moztorro festaren garaia hasiera eman zioten. Urte luzez kaldereroen konpartsan irten den laukotea gogoan izan zuten, hots, Joxe Barberena, Marian Ageitos, Jose Angel Utiel

eta Koro Aizpurua herrikideek osaturikoa. Inauteriak ostegun honetan martxan jarriko dira, ikasleen ospakizunarekin. Ostiralean jaiak jarraipena izango du Gazte Lokalean eta larunbatean inauterietako egun handia ospatuko da. Eguerdian hasita,



laz tribuak izan ziren protagonistak Urnietan, aurtun berriz, marrazki bizidunak.

moztorroak ikus ahal izango dira eta konpartsa nagusiak kalejiran irtengo dira arratsaldean zehar, Zumea plazatik Goi-koplazara.

Gaua luzatze aldera, goizaldera arte disko festa antolatu dute Nafarroa plazan.

URNIETA

Lauzpabost karroza behintzat ikusi ahal izango dira aurtengo inauterietan, marrazki bizidunen giroan ospatuko direnak. Arratsaldean, Idiazabal kalea moztorro eta musikaz beteko dute.

Andoaingo Gazte Lokalean hitzorduak antolatu dituzte ostegunean eta ostiralean; konpartsen desfilea larunbatean da

TRAFIKOA

Desfileek bus garraioan eta ibilgailuen joan etorrietan eragina izango dute, larunbat arratsaldean bereziki. Nagusiki Idiazabal kalean Urnietan, eta Kale Berrian Andoainen.

[URNIETA, 3. ORRIALDEA]
[ANDOAIN, 7. ORRIALDEA]

Kurriiloak desio baten bila



Salesiar ikastetxeko ikasle eta irakasleek haur minbizia- ren nazioarteko egunaren atarian kanpaina burutu dute, paperezko kurriiloak egin eta banatuz.

[URNIETA, 2. ORRIALDEA]

Kohesioa, gerorako ardatza

Jose Antonio Rodriguez Ranz "Txiki" Deustuko unibertsitateko dekanok Basteron hitzaldia eman ondoren, elkarrizketa eskaini dio Aiurri. Kohesioa etorkizuneko ardatz dela dio.

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]

Birziklatze datuak bi herrietan

Andoaingo Garbigunearen lehen urtean datu baikorrak eskaini dituzte. San Markos Mankomunitateak, bere aldetik, iazko datuen bilketa argitaratu eman du.

[ESKUALDEA, 10. ORRIALDEA]

Laida Jauregi gaztea

Andoaingo gaztea kooperatzaile lanetan aritu da Peru herrialdean.

[ANDOAIN, 8. ORRIALDEA]

Sahararen aldeko hitzorduak

Urnietan elikagaiak biltzen ari dira; Andoainen bertso saioa izango da otsailaren 22an.

Urnietan elikagaien bilketa kanpaina burutzen ari dira hilabete honetan, eragile askoren parte hartzearekin. Tartean dira herriko merkatalguneak eta ikastetxeak. Oinarrizko elikagaiak, konpresak, jostailuak edota arropa biltzen ari dira. Bildutakoa zuzenean Sahara aldera joango da.

Andoainen elikagaiak biltze-ari amaiera eman zioten urtarilean, eta otsailean ohiko bilakatu den elkartasunezko bertso saioa antolatuko dute. Inauterien osteko igandean, Sahara herriaren aldeko bertso saioan kantari arituko dira Basteron Aitor Mendiluze, Jexux Mari Irazu, Amaia Agirre, Alaia Martin, Unai Muñoa eta Beñat Gaztelumendi. Gai-jar- tzailen lanetan Ion Beloki arituko da. Sarrerak dagoeneko salgai daude honako saltokietan, 6 eurotan: Ernaitza, Delgado, Stop eta Urrats.



Bertso saioa otsailaren 22an izango da Basteron, eguerdiko 12:00etan hasita.

HAUR MINBIZIAREN NAZIOARTEKO EGUNA IGANDE HONETAN

Ikasle eta irakasleen ekimena minbizia duten haurren alde

Igande honetan haur minbiziaren nazioarteko eguna ospatuko dute. Salesiar ikastetxean sentsibilizazio kanpaina burutzen aritu dira ikasle eta irakasleak, sare sozialetan bideoak eta argazkiak eskegiz. Kurriloa izaten ari da kanpainaren irudia.



Ekimenean parte hartu duten ikasle eta irakasleak. Mahaiaren ondoan Olatz Costas, Almu Salas eta Irene Larrañaga.

Kanpainarako kurriloa, erdarazko grulla, ardatz hartu izanak badu esanahi berezia. Sadako Sasaki neska japoniarraren bizitzan oinarrituta dago. Hiroshima eta Nagasakiko lehegailu nuklearren garaian, Sadakok bi urte zituen eta eztanda gune batek kilometro eta erdira harrapatu zuen. Bederatzi urtera arte neska indartsua, kirolaria eta kemen handikoa zen. Egun batean korrika zebilela gaizki sentitu eta lurrera erori zen. Ospitalean leuzemia zuela adierazi zioten. Egoera horretan haren lagun Chizuko Hamamotok aholkua eman zion, tradizio zaharrean oinarrituta: mila kurrilo egin zitzala, hartara desio bat eskatzeko aukera izango zuelako. Diotenez, kurriloak egiten hasi zen bakea eta gaixorik zeuden guztientzat osasuna eskatzeko desioarekin. 644 egin eta gero neskaxa hil egin zen, azken hamalau hilabeteak ospitalean igaro eta gero. Bere ikaskideek 1000 kurrilora iristeko lanak hartu zituzten eta denbora gutxira, Sadakoren omenez monumentua altxa zuten. Irudian, nola ez, Sadako agertzen da kurriloa eskuetan duela.


Historia hark hunkituta, eta haur minbizia zer den oso gertuko bizi izan duelako, **Almu Salas** irakasleak ikastetxean bertan sentsibilizazio kanpaina burutzea erabaki zuen. Argazkilaritza, diseinua, bideoa... jarduera ezberdinen batura beharrezko zuten. “Ikasleekin aztertu nuen ideia eta gogo onez hartu zuten. Inplikazioa erabatekoa izan da”. Bereziki lagungarria izan da ikaskideen laguntza. Haietako bi dira **Olatz Costas** pasaiarra eta **Irene Larrañaga** zizurkildarra, azken hori Urnietako logo berriaren egilea da. Irenerentzat ez da ikasketa prozesu edo lan hutsa izan, “nik ez dut gaixotasuna gertutik ezagutu eta kanpainan murgiltzean gaiarekin erabat sentsibilizatu naiz”.

Landu zuten bideoetako bat Donostian grabatu zuten. Hiri-buruko kaleetan ikasle talde bat kurriloak eta japoniar kontakizunaren azalpena banatzen agertzen da, “hiritarrak ezustean harrapatu eta kurrilo bana ematen genien. Bideoan hiritarren erreazioa biltzen da”. Ez da egin duten bideo bakarra izan. Kurriloak nola egin azal-

tzen duen beste bideo bat ere egin zuten, eta ikasle guztiek ikusi ahal izan dute. Era horretan, ikastetxe osoa kurriloa egitera gonbidatuz. Urnietan ere japoniar tradizioak agintzen duena bete nahi izan dute, alegia, desio bat eskatu ahal izateko 1000 kurrilo egitea. Ikastetxe osoaren laguntzarekin mila eta ehundik gora egin dituzte. Eta zein da desioa? “Helburua anitza da. Bata, sentsibilizazioa da. Haur minbizia norberaren etxean gertatzen ez bada badirudi ez dela existitzen. Eta gaixotasuna hor dago. Bestalde, oso garrantzitsua da gaixotasun hauei aurre egiteko ikerketa sustatzea. Azkenik, haur guztien eskura jarri behar ditugu beharrezko dirren medikamentuak”.

Datozen egunetan kurriloak ikastetxetik Urnietara hedatzeko asmoa dute. Apaingarri gisa jarriko dituzte udaletxean eta hainbat merkatalgunetan. Eta, laster, ikastetxetik Donostiako Ospitalera talde bat abiatuko da, kurriloak oparitzera. Irteera horrekin egitasmoa borobilduko dute. Zinez txalogarria den egitasmoa.

KANPAINAREN ALDEKO ARGAZKIAK



Sentsibilizazio kanpainaren beste atal bat sare sozialen erabilera izaten ari da. Elkartasun ekimenetan ohiko bilakatu denez, autoerretratu edo selfie-a egin eta hiru lagunei erronka botatzen ari dira hainbat eta hainbat.

Beste batzuk, kanpainari bere atxikimendua adierazteko erabiltzen ari dira. #1000kurrilo esaera jarrita igotzen ari dira argazkiak internet sarera. Salesiar ikastetxean argazki horiekin guztiekin murala osatzen ari dira.

LARUNBAT HONETAN INAUTERI GIROKO OSPAIZUNA EGUN OSOAN ZEHAR

Marrazki bizidunen giroko inauteriak Urnietan

Badator mozorroa jantzita kalera ateratzeko eguna. Larunbatean kolorez eta umorez mozorrotuko da Urnieta eta herritarrek azken orduko prestaketatan dabilta.

Doraemon, Pantera arroxak edo Son Goku mozorro desfilean ikusteko aukera izango da eguerditik hasita. Herri bazkaria, desfilea eta mozorro lehiaketarekin osatuko dute ospakizuna.

Aurten marrazki bizidunetz jantzeko deialdia egin du Poxta Zahar taldeak. Gaia horixe da eta mozorroak prest dituzte, baina herritar askok sekretupean dituzte oraindik beraien ideiak: “Askokez dute beraien mozorroa zein den esaten; batez ere, zerbait polita antolatuta badute, egunean bertan sorpresa emateko”, dio Poxta Zahar taldeko Eneko Salaberria kideak.

Gutxienez, bost koadrila inguru ari dira karrozak prestatzen eta larunbaterako dena eginda izango dute, desfilea ateratzeko. Karrozarik egin ez duenak ere, mozorrotuta atera eta kalez kale desfilatzen atera izango du.



Aurten bestelako arrazak edo taldeak nabarmenduko dira inauterietan. Marrazki bizidunei loturikoak izango dira.

EKINTZAK GOIZETIK GAUERA

Eguerdian hasiko da festa. 12:00etan poteoa izango da, gainontzekoen mozorroak ikusi eta bakoitzak berea erakusteko unea. Ondoren, ordubietan bazkaria egingo da San Juan plazan. Eguraldi txarra egingez gero, Egapeko frontoian jarriko dituzte mahaiak. Koadrila bakoitzak bere bazkaria eraman beharko du eta Poxta Zahar taldeak edaria jarriko du. Txartela bi euroren truke eskura daiteke Xauxar eta Amairu tabernetan. “Jende kopurua kontrolatzeko txartela aurretik erosi behar dute herritarrek. Ostegunera arte edukiko dute aukera”, azaldu du Enekok.

Horren ostean, 16:30etan, Bosko Anitz aisialdi taldea eta txarangarekin batera, desfilea hasiko da San Juan plazatik. Kalez kale ibiliko dira, Goi-mendi ingurutik Idiazabal kalean zehar. Ondoren, 19:00ak aldera mozorro lehiaketa egingo dute. Momentuan bertan eman beharko dute izena partaideek, eta mozorro eta karroza hoberenak sarituko dira. Kalean ez da aspertzeko betarik izango; izan ere, batukadak alaituko du arratsalde amaiera. Afalorduan, Dj Amine urnieta-



Nora Garmendia eta Eneko Salaberria Poxta Zaharreko kideak.



Udal pabilioitara lauzpabost karroza ezberdin egiten ari dira egun hauetan.

rrak jarriko du musika eta amaitzeko, Rock Kam Brum taldearen kontzertua egongo da.

ZIRKULAZIOA IDIAZABAL KALEAN
Larunbatean aldatetako izango dira zirkulazioan, zehazki Goi-mendi tabernaren paretik Eko-

“Herrian bertan egiten diren festetan pasatzen dugu ondoen. Jai oso alaia eta polita da. Jendeak lotsa galdu eta ondo pasa dezala”

Eneko Salaberria

Tolosa frutadendaraino, arratsaldeko 17:00etan hasi eta goizaldeko 01:00ak arte. Kalearen okupazioaren eta jendearen parte hartzearen arabera trafiko neurri berezia goizaldeko 03:00ak arte luzatuko da.

Ordu tarte horretan Garayar konpainiaren autobusak herri-gunean geldialdi bakarra egingo du Andoainarako eta Hernani-Donostiarako norabideetan. Autobusak anbulatorio zaharraren ondoko biribilgunean jaso eta utziko ditu Urnietako bidaiariak.

GERO ETA INDARTSUAGO

Haur, gazte zein heldu animatzen da inauteri eguna ospatzera. “Inauteriak festa bereziak dira, adin guztietako jendea animatzen delako”. Gainera, urtetik urtera festa jendetsuagoa dela iruditzen zaie. “Indarra hartzen ari da eta hori oso

positiboa da”, azpimarratu du Nora Garmendia. “Asko eskertzen da herrian bertan inauteriak ospatu ahal izatea, Tolosara edo beste herriren batera joan beharrik izan gabe. Batez ere, azken urteetan hartzen ari den indarra eta jendeak eskaintzen dion babesa” ikusita, gaineratu du Enekok.

“Inauteriak oso bereziak dira. Esate baterako, badago guraso talde bat urtero beraien kabuz antolatzen dena. 60 lagun inguru biltzen dira, mozorrotuta eta karrozarekin ateratzen dira”, azaldu du Norak. Horrek erakusten du herritarrek parte hartzeko gogo handia izaten dutela. Duela bost urtetatik indar handia hartzen ari da eta inauteri giroa zabaltzen ari da herrian.

Elkarrekin parte hartu eta ondo pasatzeko egun bat gehiago dute urnietarrek: “Herrian bertan egiten diren festetan pasatzen dugu ondoen. Jai oso alaia eta polita da, gazteek gain haurrak eta helduak ere kalera ateratzen direlako”.

Eguna zein gaua aprobetxatzen dituzte eta aurreko ere, du-darik gabe, horrela egingo dute. “Jendeak galdu dezala lotsa eta ondo pasa dezala”.

EGITARAUA

OTSAILAK 14, LARUNBATA

12:00 Poteoa San Juan plazatik hasita.

14:00 Bazkaria plazan. Txartelak 2 euro. Eguraldi txarrarekin Egapeko frontoian. Janaria bakoitzak bere etxetik eraman behar du. Edaria Poxta Zaharren eskutik.

16:30 Desfilea herrian zehar Bosko Anitz aisialdi taldea eta txarangarekin batera.

18:00 Show-a Idiazabal kalean. Kalejira Buruntzantzantaldearekin.

23:00 Rock Kam Broom.

Trafikoa: Idiazabal kalea bus eta ibilgailuentzat moztuta.



FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

Greziari begira

Grezia beti da eta izan da erakargarria hainbat arrazoiengatik: Geografia, kultura, artea, pentsamendua. Geografia-ri dagokionean, paisaia ezin hobekak ditu, batik bat, itsasaldera, hondartza ederrez hornitua. Barnealdeak ere badu bere xarma. Kultura mailan, Grezia zibilizazio ospetsua izan da eta, historia ikasi duen edonork gogora ditzake arte mailan izan duen garrantzia. Eta, nola ez, Grezia pentsamendu berri baten sortzailea izan zen. Gogora ekarrita, Platon, Sokrates, Presokratikoak, etab.

Zibilizazio orok bezala, ordea, Greziak ere gorabehera asko izan ditu eta bizi garen momentu honetan krisiak gogor jo du han. Europar Batasunaren eraketak eta, batez ere, Troika osatzen duten gobernuen eraginez, zorra metatzen joan da, eta murritzeta basatiak egitera behartu dituzte. Horrez gain, han ere ustelkeriak esparru asko irabazi du eta guzti horren ondorioz, populazioa miseria gorrian jauzi, eta ezin izan ditu oinarritzko beharrak ere bete. Jakina, Greziako alderdi politiko guztiak ez dute filosofia berdina eta krisi larri horretatik ateratzeko estrategiak ere desberdinak dira. Esan dezagun orain arte gobernatu duen eskuinak, hemengoa genuke horren isla garbia, murritzketari eman dio lehentasuna eta, politika horrek, populazioaren miseria areagotu egin du. Amorrua bizitu egin da eta protestak ugari. Horren isla hemengoa ere bada. Gogora Maiatzak 15 eta beste zenbait mugimenduk mugiarazi duten jendetza. Syriza, oraingo hauteskundeetan lehen indar gisa atera den alderdi politikoa, lehen ere aurkeztu zen, baina ez zuen gobernatzeko aukerarik izan jasotako bozkak ez baitzioten eman aukerarik. Parlamentuan, ordea, lanean jarraitu zuten. Oraingo hauteskundeetan, azkenik, lortu du; ez gehiengo baina bai lehen indarra izatea. Egia esan, asko gustatu ez zaidan eskuinarekin osatu behar izan du gehiengo. Dirudienez, eskuineko gobernakide horiek, bakar batzuk alegia, ados daude Europar Batasunaren eraketa ereduan.

Beraz, Tsiprasen gobernu nahiko gai da Greziaren norabidea markatzeko. Eta, antza, hasi da markatzen. Hasi dira harreman diplomatikoak. Kontua da duen zor hori nola konpondu eta horretarako nola zuzendu edo berritu Europa Batasunaren eraketa. Hor ibili dira Frantzian eta

Erroman konplizeak bilatzen. Gogoratu behar da 1953an Greziak eta Espainiak besteak beste, Alemaniari zorra barkatu ziela. Bada esaera bat: “Hurkoaren txakurrari ogia ematen dionak, ogia zein txakurra galtzen ditu”. %60a baino gehiago barkatu zioten bi gerra ondoren, alegia, Alemania bigarren Mundu Gerraren ondoren miseria gorrian geratu baitzen. Ez dakigu zertan geratuko den auzia baina espainiar estatuan, eta noski Euskal Herrian ere bai, Greziari begira jarraitzen dugu.

ESTATU ESPANIARRA?

Azkenaldi honetan, hemen ere giza mugimenduak eraginda hainbat protesta sortu eta eman dira. Eta horrelakoak sortu zirenean politikoez berehala esaten zuten “antolatu daitezela indar politiko batean” eta giza errealtatea eraldatzeko parte har dezatela erakundeetan. Ba hor dugu “Podemos, Ahal Dugu” alderdi politiko gisa haserre eta amorru bizi horren isla. Eta indartsu sortu da. Europar Hauteskundeetan alderdi nagusien bitasun hori hautsi zuen eta nahiko txukun joan zaio Europan. Denbora gutxian, indar hori ugarituz joan da. Jada eraikuntza mailan aurrera doaz, eta. Esaterako, gaur hasiko dira Euskal Herrian, hiru hautagaietatik bat aukeratzen. Horrenbestez, Erkidegoan zuzendari bat izanen da.

“Podemos, Ahal Dugu”ri buruz gauza asko esan da eta esaten ari dira; eta ez beti errespetuz. Irainez baizik. Alderdi politiko tradizionalak ezin dute iren-tsi horrelako giza mugimendubaten indarra eta komunikabide guztiak erabili ohi dituzte aipua kentzeko. Nire irudiko, alderdi berri horren norabide osoarekin ez nago ados, baino kontxo, izan dezagun errespetu pittin bat eta egitekotan, egin diezaiegun kritika politikoa eta ez irain. Non geratzen da etika? Utz diezaiegun bidea egiten. Inkestek diotenez, Estatu espainiarrean lehen indarra lirateke. Euskal Herrian ez hainbeste, baina badirudi indarrez sartuko liratekeela Erkidegoko erakundeetan. Niri, egia esan, ez zaizkit gehiengoak gustatzen; nahiago elkar lana. Horretarako “Podemos, Ahal Dugu” formazioak ere uste dut apal jokatu behar duela, eta ez bestea ukatzea norbera berresteko. Errespetuz jokatu behar duela uste dut, eta gizartea aldatzeko programaren arabera elkartu.

Itxaropen horrekin, ongi etorriak eta elkar ikusiko dugu!!

Urnietako abeltzainek gertakari larria salatu dute

Ardiak hilda aurkitu dituztela salatu dute



Lategi-Goiburu auzuneko baserritarrak kexu agertu dira

Urnietako Lategi-Goiburu bailarako hainbat baserrietako artzainen ardiek erasoak jasan dituzte azken hilabeteetan, eta guztira, 30 arditik gora hil dituzte eta beste hainbat larriki zauritu. Iartza baserriko Joxe Esnal, Adarrazpiko Mikel Beldarrain, Izarreko Eukene Garmendia, Bentako Tomas Miner, Antso Domingo Bengoetxea, Larrabilgo Jeronimo Esnaola, Sabordegiko lurretan artaldea duen Abel Segurola eta Zua-tzeta, Latxa, eta Baxitegiko baserritarrak izan dira kalte-tuak.

Azaroaren 19an hasi ziren erasoak eta lehena Antxoko Domingoren ardiek pairatu zuten. Artzainak azaldu duenez, bi eraso jasan ditu, bata azaroan eta bestea abenduan: “Ardiak hiltzeaz gain, beste

hainbat zaurituta utzi dizkide: muturra txikituta, hankak arrastaka dituztela... Zaurituta utzi zuteneko bat gerora hil egin da”.

Bestalde, erasorik bortitze-na jasan duena Mikel Beldarrain izan da. 400 arditik gorako artaldea du eta bi eraso jasan zituen urte amaieran: “Lehenengo erasoan 3 ardi txikitu zizkidaten eta bigarrengoan 32. Horietatik 7 hil egin dira eta gainontzekoak elbarri geratu dira. Duela bi aste, ahari bat ere erasotu zidaten”.

Itxuraz, eraso hauek zakur-rek eginak direla uste dute, izan ere, behin baino gehiagotan ikusi dituzte artaldetik ihesi. Hala ere, ez dago frogarik eraso guztien atzean zakur berak daudenik adierazteko. “Badirudi zakurrak ez doazela janariaren bila, odo-

laren bila, baizik. Ardiei ahalik eta min handiena egitea baitzuten helburu eraso guztietan”, gaineratu du Mikel Pagola alkateak.

IRTENBIDE BILA

Ez dakite zakurrak nongoak diren, izan ere, Hernani eta Andoain inguruan ere erasoak egin dira. Horregatik, zakurren jabe direnei dei egin nahi diete, gauetan zainduta eta kontrolatuta izan ditzaten.

Eraso gehiago saihesteko gauero ardiak etxe inguruetara sartzen dituzte, artaldea zelaian uzteko lasaitasunik ez dutelako. Gipuzkoako Foru Aldundia laguntza emateko prest agertu da. Oraingoan, Ehizako Federazioarekin hitz egiteko asmoa du, dardoekin zakurrak harrapatu nahi badira, baimena behar delako.

Otsailean zehar Urnietako merkatalgune eta ikastetxeetan

Elikagaien bilketa

2007az geroztik Urnietan elikagai bilketaren kanpaina burutzen ari dira, eragile askoren parte hartzearekin. Tarteran dira errefuxiatuen kanpamenduen alde lan egiten duten hainbat elkarte, herriko merkatalguneak, ikastetxeak, etab. Eragile horien guztien elkartasunari esker urtero kamioi bat Saharar kanpamenduetara eramatea lortu dute. Iaz, 400 Kg. elikagai bildu

zen Urnietan, 60.000 Kg. guztira Gipuzkoan.

Guzti horrekin abiatu zen Afrika aldera *Piztu Itxaropena* karabana. Aurten ere, Udalen arteko elkarlanari esker, bigarren eskuko kamioi- edukiontzia erosiko dute, bildutako gai guztiak eraman ahal izateko. Kamioi- edukiontzi hori kanpamenduan bertan geratuko da, bertako garraio beharrei erantzuteko.

BILKETA

- **Elikagaiak:** kontserbak, arroza, pasta, azukrea, di-listak, garbantzuak, etab.
- **Garbitasun produktuak:** konpresak eta fardelak.
- **Jostailuak:** pila gabekoak edo argi indarrik behar ez dutenak.
- **Eskolako materiala:** margoak, arkatzak, koadernoak, ordenagailuak, etab.
- **Arropa.**

JOSE ANTONIO RODRIGUEZ RANZ

Kohesioaren beharra, Andoain herriak aurrera egin dezan

Urtarrilean Rosa Ayerberekin batera Udal Artxiboak antolatutako hitzaldietako bat eskaini zuen Jose Antonio Rodriguez Ranz “Txiki”k. Iragan mendeko argazki zehatza eskani zuen, datu bidez.

Testuinguruan sakontze aldera, egilearen beraren ikuspegia jaso nahi izan du Aiurri astekariak. Horra Deustuko Unibertsitateko Gizarte eta Giza Zientzietako dekanoarekin izandako solasaldia.

Hamabost urte igaro dira azterketak historikoak egin gabe zabilaz. Faltan botatzen duzu garai hura?

Jose Antonio Rodriguez Ranz. Une honetan ez dut faltan botatzen Andoain herriari loturiko azterketak egitea, egia esatera, baina itzuliko naiz bide horretara. Ikerketari denbora gehiago eskaini ezin izana, hori da faltan botatzen dudana. Unibertsitateko lana ahal dela ikerketarekin uztartzen saiatzen naiz eta alde horretatik “*La politica como pasion. El lehendakari Jose Antonio Aguirre (1904-1960)*” (Tecnos) liburuak balio izan dit ikerketarako dudana zaletasun hori pixka bat asetzeko.

Dekanoa zara Deustuko unibertsitatean. Eta zein da, zehazki, dekanoren lana?

J.A.R.R. Nire kasuan enpresa handi baten burua naiz. Unibertsitateari enpresa edota Deusto Bussines School atalek ospe handiena ematen dioten arren, zuzentzen dudana Gizarte eta Giza zientzietako fakultatea Deustuko unibertsitateko handiena da. 255 nomina dira hilero. Enpresa handia da, goi mailako formazioa zuzenduta dagoena: komunikazioa, turismoa, gizarte lana, humanitateak, hizkuntzak,... Horiez gain, Deustuko institutu guztiak ere gure fakultatearen menpe daude: giza eskubideetako, europear edota euskal ikasketetako, aisialdiko, etikakoa... Aterki zabal baten parekoa da gurea.

Esan gabe doa ardura handi samarra duzula.

J.A.R.R. Bai, eta gizartea bezala etengabe aldatuz doana. Lehiakortasun handia dago eta adi egon beharra dago.

Zure burua eroso ikusten al duzu langintza horretan?

J.A.R.R. Bai. Azken boladan esaten ari naiz nire irakasle izatearen garaia joan direla. 2003an eman nuen klasea azken aldiz, eta geroztik instituzio ezberdine-



Jose Antonio Rodriguez Ranz, Basteron hitzaldia eskaini aurretik.

tan aritu izan naiz lanean. Unibertsitatera itzuli nintzen, baina gestio lanetara. Irakasle izatearen tren hori galdu dudala uste dut. Kudeaketa lanak amaitzen ditudanean ikerketari denbora eskaini nahiko nioke.

Basteroko hitzaldian Andoaingo datu demografikoak eta politikak azaldu zenituen luze eta zabal. Haur zinela, auzoan zuzenean eza-gutu zenuen XX. mendean espainiar lurraldetik etorritako inmigrazioa.

J.A.R.R. Herriko etxeetan bizi ginen eta garai hartatik bi irudi ditut gogoan. Gure eskaratzear hama bizilagun ginen, lau bertakoak eta sei kanpokoak. Gehienak Extremaduratik etorritakoak ziren, baina baziren auzoan Gaztela-Leongo eta Soria aldekoak ere. Gure eskaratzear zegoen proportzio hori modu beretsuan auzune osoan ematen zen. Integrazioa ona izan zela esango nuke. Ez daukat bi komunikateen irudirik, ez behintzat haurren artean eta ez-

ta gurasoen artean ere. Gure auzunean ez da jatorriaren arabera bereizketarik egin.

Beste irudi bat gordetzen dut, ikasturte amaierako ekitaldian ikasleei agertzen saiatu naizena, eta etorkizunari begira baliagarri izan daitekeena: 70eko hamarkadan SAPA enpresak 500 langile zituen. Egurdiko 12:30etan, sirena hotsekin batera, langile horiek guztiak buzoa jantzita ilaran etxera itzultzen ziren bazkaltzera. Eta 14:00etan buelta lanera. Horietako askok, enpresa berean 40 urte egiten zituzten, kasu batzuetan haien seme-alabek ere bai,... garai hartako industria eredu zen. Orduan ehundik gora langileko 8 fabrika zeuden Andoainean, gaur 3 bakarrik.

Neronek ikasleei esaten diet garai hura amaitu dela. Etorkizuneko langileek toki batean baino gehiagotan lan egingo dute, munduko toki ezberdinetan.

Espainiatik etorritako haiengana adiera zatarrak ia gaurdaino iritsi dira, ordea. Askoren arte-

an, “txurriano” hitza. Gaur egungo gizartearen eraikuntzan ezinbesteko izan ziren haiekiko injustizia modukoa egon al zen?

J.A.R.R. Benetan diotsut, ez daukat sentazio hori. Eta ez da gure burua zuritzeagatik. Integrazioa bi aldeetatik esfortzu handia egin zen, eta benetako integrazioa hurrengo belaunaldiarekin eman zen. Lehenbizi etorri ziren haien seme-alaben belaunaldiarekin.

Gizarte orotan kohesioa funtsezkoa da. Azken hamarkadatan, ordea, gatazka politikoa une gogorak bizi izan dira.

J.A.R.R. Hitzaldian zehar azken berrogeita hamar urteetan hausturarako arrisku une ezberdinak egon zirela aipatu nuen. Lehen, bi komunitateen artekoak sortu zuena. Arriskua egon zen kanpokoen etorrera proportzio handian gertatu zelako. Elkarbizitza hori berrantolatzeak bere lana eman zuen baina, zorionez, denboraren ikuspegiarekin arrisku hori ondo gaingitu zen.

Indarkeriari lotuta, Andoainen ETaren indarkeriak eta estatutuak edota indar polizialek eragindako giza eskubideen urraketak beste tokietan baino gehiago eman dira? Ez dut uste. Bestalde, egia da ETak eragindako bi hilketek kohesio hori kolokan jarri zutela. Normalizat hartu behar da min hori eta zatiketa hori. Hildako bi pertsona horiek itzal handia zutelako, eta baita bertakoa den

“Gaur egun gizarte mailan gaingitzea dugun erronkarik handiena bazterketarena da”

ingurua. Azken berrogei urteetan giza eskubideen urraketa ugari egon da, eta beharbada batzuetan gizartetik ez dugu behar bezala erantzun. Zatiketarako arriskua egon zen, baina alde horretatik baikorra naiz. Ez da egun batetik bestera egiten den prozesua; kohesiorako bide horretan sakontzen badugu, erabat justifikatuta dagoen zauri hori sendatuz joango da.

XXI. mendea aurrera doa eta kohesioa mehatxatzen duen faktore berriak kezkatzen zaitu: gizarte mailakoa. Ekonomiaren egoera zailari erabat lotuta dagoena, bide batez.

J.A.R.R. Gaur egun gizarte mailan gaingitzea dugun erronkarik handiena bazterketarena da. Langabezia datuak auzora, eskaratzera ekarrita..., bistan da gugandik oso gertu kinka larrian dauden familiak bizi direla. Horiek bazterrean uztea da dugun arriskurik handiena. Lana dugunon eta ez dugunon artean haustura gertatzen ari da. Eta horrela jarraituz gero, haustura lan duina eta lan kaskarra dugunon artekoa izango da. Gaur gaurkoz hori da dugun arriskurik handiena. Horregatik kohesioa hitza nabarmendu nuen Basteroko hitzaldian.

HERRI ANTZERKIA, KOHESIORAKO BIDEA

“Kohesioaren bidean adibide sinplea eta esanguratsua jarriko dut: Otsailaren 1eko Herri Antzerkia. Dozenaka andoaindar oholza gainean belaualdi, lanbide eta pentsakera ezberdinekoak... horiek guztiak egitasmo berean elkarrekin ikusteak kohesioa modu ezin hobean lantzen du. Niretzat hori da bidea.

Zatiketa eta bazterketaren arriskua gaingitzea modurik eraginko-

rrena da, ez daukat zalantzarik. Herri antzerkiak mendeurrena gogora ekarri nahi zuen, eta horko lan artistikoa txalogarria da. Niretzat, ordea, baliorik handiena kohesioari egiten dion ekarpena da. Zorionez, nire ustean, Andoainean azken urteetan hori lortu duten gero eta ekimen gehiago dago. Denok gara herri, oso argi geratzen da horrelako ekimenean”.

AURREKO LARUNBATEAN ANDOAINGO KALEETAN

Kaldereroen etorrera

Hotzari aurre eginez, larunbat arratsaldean Kaldereroen tradizioa biziberritu zuten Kaletxikin hasi eta herriguneraino. Aurtengoan, gainera, “Andoingo Kaldereroak” txarangarako musika doinu be-

rria aurkeztu zuen Gora Kaletxiki txarangak. Egilea, nola ez, txarangako buruzagi lanetan aritu zen Joxe Mari Oiartzabal musikaria da.



Ostiral arratsaldean Ondarreta ikastetxekeok kalejira egin zuten.



Adin guztietako kaldereroak bildu ziren Gokoplazan, hungariarren kanpalekuan.

Aurtengo edizioan urte luzez tradizioari eutsi dioten lau herritar omendu zituzten. Zehazki, 1987tik parte hartzen ari diren lau pertso-

na: Joxe Barberena, Marian Ageitos, Jose Angel Utiel eta Koro Aizpurua. Hotz handia egin zuen larunbat arratsaldean eta hori dela eta aurreko urteetan baino jende

gutxiago mozarrotu zen. Txarangako kideek alaitu zuten herrigunea, aurten gainera “Andoingo Kaldereroak” doinu berria joz. Afalostean, giro ederra sortu zen

Berrozpen egin zuten dantzaldian. Kaldereroen antolatzaileen izenean, Jexux Ibañezek esker ona adierazi nahi die jaia posible egiten lagundu zuten guztiei. Honako

tabernarien laguntza eskertu nahi dute: Aterpe, Olloki, Elizondo, Ganbara, Kabia, Azken, Aker Beltz, Trañerum, Irrintzi, Iturrieta Karatxe.



Joxe Mari Oiartzabalek konposaturiko “Andoingo Kaldereroak” kantua eskaini duten aurten lehen aldiz.



San Juan bataiatzailetik Kaletxikira, eta handik Gokoplazara abiatu zen kalejiraren hasiera.

SANTA ESKEA ANDOAINEN, HOTZARI AURRE EGINEZ



Hotz galanta egiten zuela eta, iluntzeko 19:00etan abiatu zuten kalejira Gokoplazatik.



Iluntzera arte, kalez kale ibili ziren akordeoilarien musikaren erritmora.

OSTEGUNETIK IGANDERA MOZORROAK NAGUSITUKO DIRA ANDOAINEN

Inauterietako egitaraua

OTSAILAK 12, OSTEGUNA OSTEGUN GIZENA

15:00 8-12 urte arteko neska-mutiko guztiak Bastero Plazan elkartuko dira.

15:15 Ikastetxe guztiak elkarrekin kalejiran abiatuko dira Gora Kaletxiki txarangak eta Dultzaineroek lagunduta. Ibilbidea: Juan Bautista Erro, Kaleberria, Zumea kalea, Kale Nagusia eta zuzean Goikoplaza. Eguraldi txarrarekin, Ondarreta ikastetxeko jolasleku estalian.

16:15 Dantza Jaia Goikoplazan Gora Kaletxiki txarangarekin, eta Dultzaineroek lagunduta. Eguraldi txarrarekin, Ondarreta ikastetxeko jolasleku estalian.

17:30-20:00 Beldurraren etxea Gazte Lokalean.

18:00 Maskara lehiaketaren sari banaketa ekitaldia Urigainen. Erakusketa: otsailak 12, 13 eta 16.

OTSAILAK 13, OSTIRALA

17:30 Mozorro festa Gazte Lokalean.

18:00 Udal Musika Eskolaren kontzertu bufoa Basteron.

OTSAILAK 14, LARUNBATA MOZORRO DESFILEA

11:30 Buruhandi eta erraldoien konpartsa. Ibilbidea: Anbrosia Olabide, Kale Nagusia, Zumea kalea eta Zumea plaza.

12:00 Mozorroak nahiz konpartsak kalez kale ibiliko dira herrian zehar.

12:00-13:15 Soinuak musika eskolako ikasleen kalejira. Ibilbidea: Eskolatik ater-

ra, Doktor Huitzi, Bastero plaza, Kale Nagusia eta Zumea plaza. Itzule-ra Kale Nagusitik Goikoplazara.

Eguraldi txarrarekin, Ondarreta ikastetxeko jolasleku estalian.

17:00-20:30 Inauteri desfileari hasiera Gora Kaletxiki txarangarekin, Txitibar plazatik Goikoplazara.

23:00 Gugaz taldearekin inauterietako dantzaldia Irunberrin.

23:00-03:00 Gazte Jai Disko Festa Nafarroa plazan.

OTSAILAK 15, IGANDEA

INAUTERIAREN JARRAIPENA

09:30 Diana Andoaingo dultzaineroekin.

12:00 Mozorroak nahiz konpartsak kalez kale.

17:00 Ameztu taldearekin haur festa Nafarroa Plazan. Eguraldi txarrarekin, Ondarreta ikastetxeko jolasleku estalian.

WWW.AIURRI.COM

Aurtengo argazkiak eta bideoak ordu gutxira ikusgai izango dira webgunean, eta baita ohiko guneta sare sozialetan ere.

Inauterietako argazki lehiaketa, 250 euroko saria

INAUTERIETAKO ARGAZKI LEHIAKETAREN OINARRIAK

- Udaleko Kultura Batzordeak argazki lehiaketa deitzen du 2016ko inauterietako kartel iragarlea eta programaren azala osatzeko.
- Lehiaketa herri mailakoa da eta horretan parte hartu ahal izango dute 14 urtetik gorako pertsonak, Andoain bizi, ikasi ala lan eginez gero.
- Gaia Andoaingo Inauteriak izango da, eta lanek jatorrizkoak izan beharko dute.
- Argazkiak Andoaingo inauterietan ateratakoak behar dute izan.
- Lanak paperean aurkeztu behar dira, gutxienez 20x15 cm-ko neurria behar dutelarik eta, gehienez, 30x40 cm-koa, euskarri gogor batean (kartoikian), eta negatiboekin edo jatorrizko artxibo digitalarekin batera aurkeztuko dira.
- Argazkiak oinarritzko prozesaketa zein prozesaketa gartuaren bidez (zonen bidezko prozesaketa, adibidez) eralda daitezke.
- Partaide bakoitzak, gehienez ere, 4 aurkeztu ahal izango ditu, txuri-beltzean ala koloretan.
- Lanak Bastero kulturagunean aurkeztuko dira otsailaren 27an, ostirala, 10:00etatik 13:00etara edota 16:30etatik 19:30etara. Lanekin batera gutunazal itxi bat aurkeztu behar da, eta horren barruan egilearen izen-deiturak, helbidea eta telefonoa; baita aukeraturiko lema azaltzen duen agiria ere. Gutunazalaren kanpoaldean zein argazkien atzealdean, lema baino ez da idatziko.
- Epaimahaia Kultura Batzordeko kide batek eta bi artistek, kritikari edo profesionalak, osatuko dute, eta bere erabakia apelaezina izango da. Erabakia prentsaren bidez ezagutaraziko da, baita sariak banatzeko eguna eta ordua ere.
- Epaimahaiaren iritziz ezagarririk egokienak dituen lanarentzat 250 euroko sari bakarra ezarri da.
- Sarituriko lana Andoaingo Udaren jabetzakoa izatera igaroko da, eta Udalak horrekin nahi beste erreprodukzio egin ahal izango ditu, eta egoki deritzon publizitate lanetan erabili.
- Saritugabeko argazkiak martxoaren 9an, astelehena, jaso ahal izango dira Basteron.

Maskara lehiaketa

Ostegun honetan Urigainen maskara lehiaketako sari banaketa ekitaldia izango da

arratsaldeko 18:00etan hasita. Maskarak ikusgai izango dira datozen egunetan.

SAHARAREN ALDEKO BERTSO SAIOA

**AITOR MENDILUZE
AMAIA AGIRRE
ALAIA MARTIN
BEÑAT GAZTELUMENDI
JEXUX MARI IRAZU
UNAI MUÑO**

**GAI JARTZAILEA:
ION BELOKI**

ANDOAINO BASTERO KULTURGUNEAN

2015/02/22 12:00etan

laguntzaileak.

Huerria Sahara
S.E.A.D-en lagunen elkarrekin

Andoaingo POTTO
bertsoakakola

Aiurri
MAPFRE
MUSIKA ETXETIK
ANDAINO

AA
ANDAINO
ARTERKATZA

ELKARTASUN EGITASMOAK

Laida Jauregi, Peru herrialdea gogoan duen kooperatzailea

Laida Jauregi andoaindarrak urte eta erdi egin du kooperazio lanean Limako (Peru) giza komunitate txiro batean. Eman baino gehiago jaso duela aitortzen du eta Perura begirako egitasmo berri bate-

an murgildu da. Bizitutakoaren ostean, halere, zalantzakor itzuli da mundua hobetzeko asmoz aurrera eramaten diren kooperazio egitasmoen inguruan.

Zer dela eta joan zinen Perura?

L.J.: Magisteritza eta gizarte integratioko ikasteketak egin ostean, garapen bidean den herrialderen batean jarduteko gogoaz nengoen; Jaurlaritzaren beka bat jasota, hiru hilabete Limako Comas distritoan egin nituen. Collique izena duen 100.000 biztanleko eremuan. Jesuitena den San Viator egoitzan aritu nintzen, hezitzaile bezala. Hiru hilabetekoaren ondoren, beste urtebete egin dut bertan.

Zein bizi egoeratan topatu dituzu Colliqueko biztanleak?

L.J.: Sendero Luminoso talde armatuaren eta gobernuaren arteko gatazka garaian, makina bat nekazarik Limara emigratu zuen; auzuneak sortu zituzten inguru menditsueta, erabat txiroak. Azpimundu bat osatu zuten, eta Lima zortzi miloi biztanle edukitzeraz iritsi zen epe laburrean. Egin kontu, behin Limara bidaia antolatuta genuen autobusez; Colliquen badira hamar urteko haurrak Limara sekula joan ez direnak, eta zur eta lur geratu ziren hiriburuarekin!

Zein zen zure zeregina?

L.J.: Umeei, emakumeei eta familiei zuzendutako egitasmoak koordinatzea egokitu zitzaidan. Batez ere hezkuntza garapenean arazoak zeuzkaten haurrekin eta horien familiekin egin nuen lan. Normalean, familiak egoera ekonomiko larrian bizi dira, eta azkenean, arazo guztiak elkarrekin lotuta doaz. Ume horien etxean, maiz, aita falta da.

Umekin hezkuntzan zeuzkaten gabezieta laguntza emateaz gain, aisialdirako aukerak eskaintzea izan zen nire zeregina. Familietara hurbiltzen saiatzen ginen, baina berehala ohartu ginen oso zaila dela eragitea. Maiz, emakumeak oso gazte geratzen dira haurdun, eta hortik aurrera, beste haur mordoa ekartzen dute mundura.

Nire egitasmoa haurrekin, zenbait ideia transmititzea iza-



Laida Jauregi gazte kooperatzaileak urte eta erdi egin du Perun.

ten zen: mundua ez dela murrizten beraiek etxean, eskolan, kallean... ikusten dutenera. "Aitak ama nola jotzen duen ikusi duzu, baina ez pentsa hori denik bizikidetzat normala", adierazten nien. Sexista eta jerarkizatua da heziketa. Haurrek oraindik bu-

rua kutsatu gabe daukate, eta horiekin garaiz gabiltza balore baikorragoetan hezteko.

Zenbat eragin daiteke egiturazko arazoa dagoen leku batean?

L.J.: Etenik gabe lan eginez, soilik horrela, hainbat belaunaldi

igaroko dira gauzak benetan aldatu ahal izateko. Alde horretatik, auzitan jartzeko modukoa izan liteke nazioarteko kooperazioak betetzen duen funtzioa.

Ikusitako panoramarekin nahiko etsita itzuli zarela dirudi...

L.J.: Bai. Nolanahi ere, nik sinesten dut mundu justuago bat lor daitekeela; mundu honek hondoa jo du, eta jada ezin du okerrera egin. Oso itxaronpentsua naiz izatez, eta izugarri gogobetetzen nau Perun egin dudanak.

Munduaren erradiografia txiki bat eginda itzuli zara, beraz...

L.J.: Ustelkeria da nagusi. Diruak eta bere inguruko interesek mugitzen dute mundua. Ohartu naiz, aldi berean, hezkuntzak eta erlijioak zenbat min eman dezaket. Erlijioek (ebangelikoek eta besteek), izugarri adoktrinatzatzen dute herria. Ez da onargarria hango jende askoren mentalitatea: "gu txiroak gara, eta hala izaten segiko dugu Jaungoikoaren borondatea delako".

Jesuitekin lanean aritu zara...

L.J.: Ez naiz fededuna, baina

"Sinesten dut mundu justuago batean; mundu honek hondoa jo du, eta jada ezin du okerrera egin"

badakit bereizten eliza katolikoaren baitan bizi diren jarrera ezberdinak. Hango jesuitek urteak daramate behartsuenen ondoan. Liberatzaileak deitzen diete, eta balore unibertsalak diren berdintasunean, errespetuan, elkartasunean..., sinesten dute. Urrun daude Bibliaren in-terpretazio zaharkitua egiten duten beste zenbait erlijioso-rengandik.

Amerikan, mugimendu bolibariarra indarra hartzen ari da. Perun nola dago egoera politikoa?

L.J.: Ollanta Humala presidentea sozialdemokrata da. Promesak egin bai, baina azkenean, Perun botereak eta ondasun naturalek atzeritarren esku jarraitzen dute. Oso gogorra da herritarren egoera, eta berdin zaie auzoetako alkateak ustelak izatea; beraien amets bakarra egunez egun bizi ahal izatea da, gutxieneko azpiegiturak edukitzea (ura, argia...). Bestalde, gizarte zibilean bada oinarritzko eskubideen aldeko mugimendu sendoa. Aipatze-koak dira mehatzariak eta ikasleak, nahiz eta hedabideetan ez agertu.

Kooperazioarekin jarraitzeko asmorik ba al duzu?

L.J.: Hona etorrita, taberna batean hasi naiz lanean, baina Lima ez daukat ahaztuta. Hango bi gazte eta hiruon artean, Colectivo Audiovisual Peru taldea sortu dugu, ikus-entzunezko, antzerki edo irratiarekin lotutako proiektuen bidez gazteen garapena jorratzeko asmoz.



Garaiz gabiltza haurrak balore baikorragoetan hezteko. Printzipio horretan sinesten du Laidak.

Proiektua crowdfunding-aren bidez finantzatzeari ekin diote. Bat egin nahi duenarentzat: www.lanzanos.com. Proyecto de animación sociocultural en Perú.

HITZ-GEZIDUNAK



Intsektu mota		Militanteen jarduna		Gaitza, bekatua	
Garratza		Mendi magakia		Harrapa ezan!	
Pilota txiki					
Gizakia prestatu				Kontso-nantea	
				Pisu apalekoa	
Iseka egiten du		Daude	Pl., ehun mota		
(Neol.) Futbolari		Talde	Errep., txori mota		
* IRUDIKO ESTATUA					
Ukapena					
			Oxigenoa	Otana, bokalik gabe	
			Infusio mota	Neka, una	Modu atzizkia
Apetaren hasiera		Itxurak			
Himno		Selenioa			
				Iodoa	
				Kontso-nantea	
Bilo			Pl. hortzen inguruko haragia		

Kale garbiketa zerbitzua berritzeko proposamena

Urtarrileko batzarraldian, kale garbiketari dagokionez, Gobernu taldeak zerbitzua berritzeko proposamena aurkeztu zuen. Hitz bitan, kanpoko enpresen lanaldia saihesteko eta Udal langileena handitzeko proposamena zen. PSE-EEK, EAJ-PNVk eta PPK aurkako botoa agertu zuten, proposamena bertan behera geratuz. Aurrakako bozka horrek EH Bilduko agintarien haserre piztu du. Ohar bidez, euren proposamenak zuen adostasuna eta lortuko lukeen diru aurrezkia nabarmendu zuten: “Gaur egun, herriaren zati bat Udaleko kale garbitzaileen bitartez garbitzen da, eta bestea FCC enpresa pribatuaren bitartez. Proposamenak zerbitzu osoa udal zerbitzu bilakatzea bilatzen du. Horretarako, hainbat material eskuratzea eta kale garbitzaileen taldea indartzea aurreikusten zen, zenbait udal langile birkokatuz. Gainera, horrek 78.000 euroko aurrezkia ekarriko luke”. Oposizio-ko ezezkoarekin ez da proposamena onartu, eta hori gogor kritikatu du EH Bilduk: “Herriarentzat eta Udalarentzat onuragarria izan daitekeen edozein proposamen uka-tu egiten du oposizioak. PSE-EEren eta EAJ-PNVren jokabidea zeharo ulertezina da”. Gobernu taldeak “proposamenari ezetz esateko pisuzko argudioak” eskatu dizkio oposizioari.

Bada, EAJ-PNVk bere argudioekin erantzun die: “Gobernu taldeak ez du egungo zerbitzuaren parekorik proposatzen. Bilduk zerbitzu murriztagoa eta txarra-

goa proposatzen du eta dirua aurreztuko litzatekeela dioten arren, ez da egia”. Bestalde, ez dute ontzat hartzen oposaketa egin gabe udaletxean dauden langileei postuz aldatzea eta horiei balorazioa eta soldatak igotzea. Zorroztasun gehiago eskatu dio EAJk EH Bilduri.

Argudioen gurutzaketa ez da hor amaitu eta astelehen arratsaldean EH Bilduk bigarren ohar baten bidez gezurretan ari dena EAJ dela adierazi zuen.


SINDIKATUEN ONIRITZIA

Gobernu taldeak batzarraldira eraman zuen proposamenak LAB eta ELA sindikatuak osatzen duten langileen komitearen oniritzia zuen. Sindikatuen adostasunaz gain, Zerbitzuen lantsaileko teknikariak ere aldeko txostena idatzi zuen.

ELAren ustez, “geuk proposamena ontzat eman dugu, langileen egoerari dagokionean parte hartze zuzena izan genuelako eta proposamenak eragiten dien langileak ere ados zeudelako. Bestetik, ez gara sartu proposamena kalterako den ala ez; izan ere gure jarrera langileen eskubideak defendatzearena izan baita. Zerbitzuaren kalitatearen eta kantitatearen kontrola Udalaren zerregina baitira”.

LABen ustez, “kale garbiketaren zerbitzua langile publikoen bitartez egin ahal bada, askoz hobe iruditzen zaigu. Hainbat bilera egin genuen eta guk ez genuen soluzio txartzat hartzen, egin zuten planteamendua ontzat ematen dugu”.

HITZ KATEATUAK



Koka itzazu diagraman honako hitz hauek:

8 hizki

Aitzakia
Amaierak
Baltantza
Bekatari
Biasteri
Erromesa
Igorriak
Iragazki

6 hizki

Arotza
Atakak
Ekarri
Eroria
Erratu
Eskean
Hamabi
Iritsi
Kalaka
Mastak
Orbela
Oreakak

3 hizki

Adi
AEK
Ama
EKA
Hur
Iaz
IKA
Kai
Lar
Ler
Pal
Tar

7 hizki

Bilobak
Gidaria
Irakana
Urakana
Zenbaki
Zitalak

5 hizki

Katua
Zimur

4 hizki

Adar
Alai
Eper
Kare
Lili
Tema

HIEROGLIFIKOA



KASIK

Z

Noiz izan zineten Irlandan

ERANTZUNAK

281



Elkartasunezko rock gaua



“Ruben Gurekin” plataformak deituta, zigor ekonomikoaren aurkako kontzertura ehunka musikazale hurbildu zen. Taula gainean, besteak beste, NCC talde ezaguna aritu zen. Antolatzaileek es-

ker ona adierazi diete elkartasunezko jaialdian parte hartu zuten guztiei: “Elkartasun kontzertua arrakastaz aurrera atera zenuten guztiei, mila esker. Elkartasuna ez da hitz soil bat”.

ZABOR BILKETA ESKUALDEAN

Garbigunea, andoaindarren eta urnietarren zerbitzura

Hondakinak kontrolik gabe botatzea saihesteko, Andoainen Garbigunea jarri zuten martxan 2013ko urrian. Ordutik hona, geroz eta erabilera hobe eman diote herritarrek.

Iaz urte osoan hamar mila lagunek baino gehiagok erabili zuen zerbitzua eta milioitik gora kilo hondakin bildu zituzten guztira. Bilutakoaren erdia baino gehiago birziklatu egin da, gainera.

Amaia Azkue Mankomunitateko ordezkaria baikor agertu da datu horien aurrean: “Balantzeari begiratu, ikusten da portzentaia goraka doala eta hondakin kopurua ere goraka joan dela. Ondorioz, erabilpenak ere goraka egin du eta hori txalotzekoa da”.

Andoainen Garbigunea jarri zuten Tolosakoaren osagarri bilakatzeko. Gainera, urnietarrek ere erabiltzeko aukera dute: “Urnietak Andoaingo Garbigunea erabiltzeko aukera du. San Markos mankomunitateari dagokion arren, gertutasunagatik hitzarmen bat egin zen eta erabiltzeko aukera eman zitzaion”. Oraingoz, ordea, Tolosakoaren erabilera askoz ere handiagoa da, urte gehiago daramatzalako eta jendeak horixe ezagutzen duelako. Denbora kontua da, Andoaingo Garbigunean erabiltzaile kopurua are gehiago handitzea espero dute, “birziklatzeko kontzientzia gero eta barneratuago daukagu, baina, Garbigunea kasu zehatzetan soilik erabiltzen dugu”.

Hondakinen bilketa sistemak birziklapenean eragin handia duela azpimarratu nahi izan du:



Garbiguneak mesede egiten die andoaindarrei; baina, bereziki, Leizotz industriagunean kokatutako enpresei.

“Errefusa bereiztera behartuta dauden herritarrek, kontzientzia handiagoa hartu eta sailkapena egokiago egiten hasten dira”. Ondorioz, “hondakinen bilketa sistema aldatzeak zuzen-zuzenean andoaindarren kontzientzian eragingo luke. Gakoa hor dago”, gehitu du.

INDUSTRIENTZAT ABANTAILA

Garbiguneak mesede egiten die andoaindarrei; baina, bereziki, Leizotz industriagunean kokatutako enpresei. Hala, be-

raiek erabilitako pilak, tonerak, tintak eta antzeko produktuak bertara eramaten dituzte. Ahaztu gabe enpresaz enpresako bilketa ere egiten dela. Amaia Azkuek azaldu duenez, nahiz eta Garbigunea gertu eduki, enpresa bakoitzaren araberako bilketa egiten da. Izan ere, “bolumen handiak izaten dira eta egokiagoa da bertan jasotzea”. Era honetara, industriaguneetako birziklapen datua %55,7koa izan zen abenduan.

HERRITARRENTZAT ETXOLA BEREZIA KALE BERRIAN

Garbiguneraino joan nahi ez duenak zaborrak bertara bidetzeko aitzakiarik ez du; izan ere, Kale Berrian, tren geltokiko pasabidearen sarreran, etxola bat dago, hondakin arriskuak bertara botatzeko. Etxola hori, Garbigune txiki moduko bat da: “etxean hautsitako tostadora bat badaukagu, pereza handia ematen digu Leizotzeraino joatea”. Kale Berriko etxolan utz daiteke, eta gero behargin batek Garbigunera eramango du.

Ez dago gaizki gogora ekartzea asteen behin traste zaharren bilketa ere egiten dela. Asotehenero kamioi bat pasatzen da kalez kale Garbigunera eramane beharrek traste zahar eta handiak biltzeko: koltxoak, elektrogailuak, ordenagailuak, telebistak, altzairuak, aulkiak... “Herritarrek abixua eman behar dute, noiz eta non utziko duten jakinaraziz”. Kamioia arduratzen da horiek jaso eta garbigunera eramateaz.

Garbigunera eramandako hondakin guztiek norabide ezberdina hartzen dute: plastiko birziklagarria Urnietako gune-

“Birziklatzeko kontzientzia gero eta barneratuago daukagu, baina, Garbigunea kasu zehatzetan soilik erabiltzen dugu”

Amaia Azkue

ra, egurra Urkiondora eta, azkenik, produktu ez birziklagarriez Mutiloa enpresa arduratzten da.

Berrerabilgune zerbitzua ere eskaintzen du Andoaingo garbiguneak. Norberak erabiltzen ez dituen baina oraindik ongi dauden tresna, altzari, aparatu elektrikoak eta abar eraman daitezke gune horretara, eta alderantziz ere bai, horretara zuzendutako gunean bertan dauden materialak har daitezke inongo kosturik gabe. “Hori ere interesgarria da, azken finean, berrerabilpena sustatzen delako”. Gune hori 610 lagunek erabili zuten 2014. urtean, hila-betetik hilabetera erabiltzaile kopurua igo egin delarik.

Garbigunea:

Leizotz industriagunea. 943 303 809.
09:00-12:30/16:00-19:00.
Larunbatetan: 09:00 13:30.

Urnietak, materia organikoaren bilketan apal


San Markos Mankomunitateak ere 2014ko datuen berri eman du eta, orohar, %37,6tik %41,6ra igo da birziklapen tasa orokorra. Bi arrazoi nagusi aurki daitezke hobekuntza horretan; industrialdeetako bilketa-datuen igoera eta materia organikoaren bilketaren hobekuntza.

Mankomunitateak kudeatzen dituen industrialdeetan nabarmen igo da birziklatze tasa. He- dabideen aurreko agerraldian adierazi zuten, “ziurrenik 2013ko ekainean abian jarritako araudi berriaren ondorioz. Araudi horri esker, bereizita bil zitez-

keen zatiak 4 izatetik 14 izatera igaro dira, eta gainera enpresei zati horietako bakoitzerako edukiontzi bereziak eman zaizkie”.

Industriaguneako datu on hori ez da urnietarrei dagokionez modu berean errepikatu. Izan ere, pilak, olioak, aparatu elektrikoak edota tamaina handiko hondakinen bilketa kopuruetan Urnietak mankomunitatearen batz bestekoaren azpitik dago. Eta datu hori hobetu beharko litzateke, Andoain-Urnietak herrien arteko mugan dagoen Garbigunea hor izanik.

Urnietak, gainerakoan, manko-



munitatearen batz bestekoaren gainetik dago ontzi arinen bilketan (plastikozko poltsak eta on-

tziak, aluminiozko latak eta tapak). Beste zenbait bilketa motatan azpitik dago zertxobait, pa-

peraren edota beiraren kasua da hori.

Materia organikoaren bilketan, Urnietak datu txarrenak eskaintzen ditu. Biztanle eta urte bakoitzeko biltzen diren kiloetan agertzen diren datuek hori islatzen dute. Urnietak agintaldi honetan nabarmen igo nahi zituen materia organikoaren datu horiek. Konpromiso hori hartu zuten ordezkariak lortu zuten EAJ-PNV, EH Bildu eta PSE-EE alderdiek. Gaur gaurkoz Urnietako Udalak 2012ko azaroan helburutzat jarrita zuen %65eko kopurutik urruti dago.



KIROL ALBISTEAK

Errepidean hasteko prest



Andoaingo Txirrindulari Eskola prest dago denboraldi berriari ekiteko. Taldeko fotoa egin zutenean, Jokin Alberdi kidea falta zen. Munduko ziklo kros proban zegoen. Horra, aurtengo kideak:

- **Ezkerretik eskuinera atzeko lerroan:** Aitor Irazu, Iñaki

Arin, Julen Irigoien, Alexey Fursenko, Koldo Velasco, Ander Amonarriz, Adrian Alamo, Imanol Martinez, Iñaki Gomez, Peio Manteola, Xabier Perez, Pedro De Godos eta Aitzol Zuriarrain.

- **Aurreko lerroan:** Jon Mikel

Mujika, Patxi Altuna, Ibai Omeñaka, Daniel Fursenko, Iker Balbas, Iker Atxaga, Maddi Rodriguez, Igoi Pikabea, Oihan Amilibia, Markel Marzol, Igor De Godos, Izaro Zuriarrain, Iurgi Altuna eta Jose Luis Barberena.

Nahikari Garcia Euskadirekin

Nahikari Garcia urnietarrak aurreko asteburuan 18 urte azpiko selekzio autonomikoaren txapelketan jokatu zuen, Toladon. Jokalari txuri-urdinak lehen faseko bi neurketak jokatu zituen. Lehenengoan, Gaztela-Mantxakoen aurka berdinketa lortu zuten eta bigarrenetan Valentzia 2-0 gailditu zuten. Bigarren gola, gainera, Nahikari sartu zuen.



Sei puntutik lau lortu bazituzten ere, Euskadi hurrengo faseetik kanpo geratu zen. Finalurrekoa jokatu aurretik, beraz, euskaldunek etxerako bidea hartu zuten.

Nazioarteko deialdi gehiagotatik deitzen ez duten bitartean, urnietarrak Realarekin Liga jokatzen jarraituko du. Oviedon dute hurrengo partida.

Senior mailako eskubaloia

ELGOIBAR 26
URNIETA 26
Senior mutilak. Partida ona ikusi ahal izan zen, emozioa azken minuturaino gordez. Lehen zatia berdindua izan zen baina bigarren zatian urnietarrek defentsan intentsitatea jaitzi eta aurkariak 50. minutuan lau goleko errenta hartu zuten. Gorritxoek ez zuten partida galdutzat eman eta defentsan hainbat aldaketa egin ondoren gol bateko errentarekin iritsi ziren azkeneko minutura. Azkeneko erasoan eta bi segunduren faltan,



Borja Rodriguezek gola sartu zuen faltaz. Rodriguezen zortzigarren gola garaipena balitz bezala ospatu zuten. Aipatu ere

John Sanchezek egindako 7 golak eta Bittor Rodriguez atezainaren geldiketa bikainak. Hurrengo jardunaldian derbia izango da, Leizaran taldearen aurka.

EGIA 22
URNIETA 27
Senior neskak. Bigarren garaipena jarraian lortu zuten. Arbitroek UKEko neskei kalte egin zieten eskusioekin, baina hala eta guztiz ere urnietarrek bi jokalarik gutxigorekin tarte handitzea lortu zuten.

Prestaketa saioa elurretan



Aurreko igandean talde polita bildu zen Xoxokan, Urnie-tako mendi lasterketa ezagutzeko antolatu zena. Hotza eta elurra nagusi zela, goizean irten ziren Adarra aldera.

Nahikoa lan izan zuten elur-raren zapalduz ibiltzen! Ibilbidearen gora-beherak ezagutzeko baliagarria izan zen. Ibilaldia amaituta salda beroa hartu zuten Xoxokan.

Irunberriko pala txapelketa

Bikoteka jokaturako txapelketan finalera iritsi ziren Antton Arruti eta Maddi Iradi alde

batetik, eta Aritz Eskudero eta Aran Rodas bestetik. Azken biak izan ziren garaileak.

Pilota partida garrantzitsua

Ostiral honetan garrantzia handiko pilota partida jokatuko da Urnietako pilotalekuan. Eskuz binaka, irabazitzeko gero, finalurrekoetarako txartela lortuko lukete.

Urnietako-Lemoa
Euskal Liga, kadeteak. 19:30.
Ondoren, Udaberri txapelketa
Paleta Senior maila.
Urnietako 2-Altzatarrak
Urnietako 1-Gazteleku

Urnietako eta Euskalduna bikain

Preferente. 19. jardunaldia:
Allerru 0-3 Euskalduna
Mariño 1-2 Urnietako.

Sailkapena, futbola:

1. Orioko	45
2. Euskalduna	43
3. Urnietako	41
4. Baskonia	35
5. Mariño	31
6. Allerru	29

Ganbarako saski taldea

ASTEBURUKO EMAITZAK:
Ostadar 60
Ganbarako Seniorrak 57
Asteburu honetan partidarik ez da jokaturiko.

Asteburuko partidak
Easo-Ganbarako Kadeteak:
Larunbata, 14. 10:00.
Ostadar-Ganbarako Infantilak:
Larunbata, 14. 09:00.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRA-BURUNTZAKO ASTEKARIA



TOKIKOM

Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.com
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Izarne Olano, Joxeba Lizeaga eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.com
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.com.
www.aiurri.com.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.com
Tel.: 943 300 732

Banatzailak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia.
Huarte-Iruñea.

Agenda

OTSAILAREN 13TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

- “La ignorancia de la sangre”. 19:30. Igandea, 15.
- 19:30, 22:00. Astelehena, 16.
- Datorren asteburuan: “50 sombras de Grey”.

Urnietan

- “Lifi”. 16:00, 18:30. Sarobe. Otsailak 15, igandea.
- “Tavistock”. 18:00. Lekaio. Otsailak 15, igandea.

Antzerkia

Andoain, Bastero

- **Erdibana**, Joxe Ramon Sorroiz eta Iker Galartza. Otsailak 20, ostirala.

Batzarra

Andoain

- Peña Santa Krutz elkartearen batzarra 10:30etan. Otsailak 22, igandea.

Lehiaketa

Andoain, Bastero

- Inauterietako argazki lehiaketa, datorren urteko programan txertatuko litzatekeena. 250 euroko sari bakarra. Lanak aurkezteko eguna: 10:0-13:00 / 16:30-19:30. Otsailak 27, ostirala.

Musika

Andoain

- Udal musika eskolaren **kontzertu bufoa** Basteron. 18:00. Auditorioa Otsailak 13. ostirala.
- **Gazte jai disko festa**, Inauteri giroan. 23:00-03:00. Nafarroa plaza. Otsailak 14, larunbata.
- **Lau mende, lau esku:** Amaia Zipitria eta Borja Rubiños pianojotzaileen emanaldia. Piano jaialdia otsailaren 28an hasiko da. 19:00. Bastero. Otsailak 23, astelehena.

Erakusketak

Andoain

- **Andoaindarrak 400:** Historiari errepasoa lau aro ezberdinetan. Otsailaren 15era bitarte.
- **Piano jaialdiak 10 urte:** Erakusketa eta musika emanaldiak. Otsailaren 21etik aurrera.

Bertsoak

Andoain

- Sahara herriaren aldeko bertso saioa: Mendiluze, Irazu, Amaia Agirre, Alaia Martin, Unai Muñoa eta Beñat Gaztelumendi. Sarrerak dagoeneko salgai. 12:00 Bastero. Otsailak 22, igandea.

Inauteriak

Andoain

- **Gazte Lokala** Beldurraren etxea. 17:30. Gazte Lokala. Otsailak 12, osteguna. Lehiaketa: “Irabazteko bakarra” gaitasun lehiaketa eta merienda. Mozorrotuta joan behar da. 17:30. Gazte Lokala. Otsailak 13, ostirala.
- **Desfilea** Egitarau osoa 9. orrialdean. **11:30** Buruhandi eta erraldioen konpartsa kalez kale. **17:00** Inauteri desfilea, txaranga eta konpartsak 20:30ak arte. Otsailak 14, larunbata.
- **Dantzaldia** Gugaz Irunberrin. 23:00. Otsailak 14, larunbata.

Urnietan

- **Inauteri jaia** Antolatzaileei elkarrizketa, Aiurriko 3. orrialdean.
- 12:00** Poteoa San Juan plazatik hasita.
- 14:00** Bazkaria plazan. Eguraldi txarrarekin Egapeko frontoian.
- 16:30** Desfilea kalez kale.
- 18:00** Show-a Idiazabal kalean. Kalejira Buruntzantzan taldearekin.
- 23:00** Kontzertua: Rock Kam Broom. Otsailak 14, larunbata.

ZORION AGURRAK


ZORIONAK



Aiur Usaralde Elizondok 8 urte beteko ditu otsailaren 16an, uff!! Ondo pasa zure egunean eta opariakgustuko izan ditazula. Aiton-amonak.

HERNANI

ZORIONAK



Jon Loiarlek 3 urte beteko ditu otsailaren 14an. Mila zorion pottolo, eta orain arte bezain jator izaten jarraitu! Muxu erraldoia. Maddi, aita eta amaren partez.

ANDOAIN

ZORION AGURRAK AIURRI

- diseinua@aiurri.com
- Aiurriko bulegoan: 943 300 732.
- **Aukera berria Whatsapp bidez:** 619 163 537.

Mujikak kargua hartu du

Urtarrilaren 30eko batzaraldian Aitziber Ugartemendiaren tokia bete zuen Esti Mujika Tolaretxipi andoaindarrak. Gobernu batzarreko kide, hirugarren alkate-orde, kultura eta euskara batzordeetako lehendakari berria da.



Literatur solasaldia

Andoaingo Udal liburutegiak otsailaren 24rako solasaldi berria antolatu du. “Intemperies (babes bila)”, Lourdes Oñederra. Ordutegia: 19:00-20:30. Otsailak 24, asteartea.

Izen-ematea:

Udal liburutegian bertan, edota 943 300 615 telefono zenbakira deituz. Baita email bidez ere, liburutegia@andoain.eus helbidera idatziz. Saioa liburutegian izango da.

Zinemaldi askea Lekaion

Urnietako gazte asanbladak otsaileko igandeetan film bana eskainiko du Lekaion, arratsaldeko 18:00etan hasita. Hilabete honetarako filmak hauexek dira:

- “Tavistock”. Otsailak 15, igandea.
- “Comprar, tirar, comprar”. Otsailak 22, igandea.
- “Festa dezagun gaurdanik...”. Martxoak 1, igandea.

DATORREN AIURRI ASTEKARIA OTSAILAREN 20AN ARGITARATUKO DA



TXOTX!

Kantu liburuxka 2015

Aiurriren eskutik

R. Zabala

943 690 774.... Aduna

Sarasola

943 690 283.... Asteasu

Larre-gain

943 555 846.... Ereñozu-Hernani

Aburuza

943 692 452.... Aduna

Gaztañaga

943 591 968.... Andoain

Oianume

943 556 683.... Urnietan

Altuna

943 554 917.... Urnietan